

BI ERRENTERiar EGITASMOGILE. (JAUTARKOLEN OROIMENEZ)

Elixabete Perez Gaztelu

Olerkaria da Jautarkolen izena entzun orduko gogoratzen zaigun lehen hitza. Ez dut ukatuko horixe datekeela, hain zuzen ere, bere alderdirik ezagunena ez ezik, baita meritu handienekoa ere, apika. Alabaina, euskaraz eta gaztelaniaz mintzatzen zen moldeko Luis Jauregi euskaltzale sutsua besterik ere bazen: ipuingilea, olerkari- eta bertsolari-aztertzailea eta ezagutarazlea, literatur kritikaria, itzultzailea..., bere olerkien sonak gainerako hau guztia atzenduxe utzi badu ere. Eta halaz guztiz, ez dakart arestiko deusen erakusgarri zuzenekorik; hobeki esan, banan-banan hartuta ez baina guztiaren atzean dagoen zerbait, guztiari dihoakiona da pleguetaraztera noana.

Bere sorturtearen lehen mendeurrena ospatzeko, begia Jautarkolen bestelako alderdi batez hautatu zait: nolazpait deitezekotan "Jautarkol egitasmogilea" izendatuko dudana. Beste modu batera esanda, jendarteratu zituen lanen atzeoihaleko burubidean, besteak lanera akuilatzen zituen arrazoietan, lanera bulkatu zuen asmoan... hautsa harrotu gogo izan dut, bere aitoren zaharberriak jardunaren sustraiak zioa, eta oraindik ere duen balioa, ikustarazi ahal izango digulakoan bainago.

"Euskal-Elertiarren etorkizuna dala-ta" txit artikulua interesgarria idatzi zuen Jautarkolek 1932. urtean. Oso-osorik hona aldatzera deliberatu naiz uste baitut merezi duela erreteriarren (eta hala ez direnen) eskeruan egotea. Axala besterik ez dut ukitu. Gaurko idaztaturaren arabera egungo euskara estandarrena, alegia letraldatu besterik ez dut egin (*Euzkadi* eta *euskotar* jatorrizko moldean utzi ditut, halaz ere). Ez dut uste Jautarkoli inolako iruzurrik egin diodanik bere hitzen geruza gaurkotzean; hondarrik hondarrean hain errotik maite eta desio zuen "euskara batuan" emanak daude-eta.

"Euskal Elertiarren etorkizuna dela-eta..."

Beren buruen jabe noizpait egin nahi izan duten herri guziak, edota hiltzeko gogo handirik ez duten herri-enda orok, ahaleginaren ahaleginez beren hizkuntza bereziak zaindu eta elertiak, literaturak, indartzen saiatu ohi dira. Herri bakoitzaren ezaugarriak argiena eta berezitasunak bikainena hizkuntza baita. Enda-hizkuntza galtzeko zorian daukan herriak, berekin darama heriotzaren harra.

Baztertuta, beste inongo herriekin hartu-emanik gabe, itsasoz eta mendiz hesiturik bizi den herriak, elertirik gabe, hizkuntza gorde lezake, alegia. Elerti landu apurtxo bat besterik gabe horra euskara bizirik. Baina gaurko Euzkadiak, ez du lehengo Euskal Herri zahararen bizitzatankerarik. Gaurkoan, elerti bikain-sendoaren jabe ez badugu egiten, luzaroan ez zaigu biziko.

Elerti orok, indartzekotan, bizitzekotan ere, irakurleak behar dituzte, eta irakurleak ikastolan sortu ohi dira. Euskal ikastola egoki-ugaririk gabe, beraz, elerti mardula iristera, ez gara inoiz helduko, eta olerkariaren eta gainerako idazleen ahalegin guziak, ahuntzaren gauerdiko eztula bezain alperrikakoak izango zaizkigu. Horixe egin dute herri guzi-guziek. Bide horretatik jo eta ke ibili dira eta era horretan beren ele eta elertiak marduldu izan dituzte. Lotsagarria, zinez, gure euskararentzat hil edo bizitzeko den eginkizun honetan, gaur arte euskaldunok agertu dugun zabarkeria. Zenbait herriak beren ele-ikastolei eusteko hartu behar izan zituzten neke, ixuri behar izan zuten odol, zapaldu zituzten eragozpen eta egin zituzten ahaleginak irakurrit, txunditurik eta harri-harri eginik gelditua naiz. Arlo nagusi honetan, orain arte baino adoretzuago eta kementsuago jokatzeko ez badugu, euskararen alde ahalegin oro egin ditugunik ez genezake egiaz esan. Euzkadiko euskal herri guzietan euskarazko ikastolak eta erdal herrietan, ostera, gure ele edo hizkuntza erakusteko ikastetxe egokiak, sare estu baten eran zabalduak ikusi bitartean, ez genuke lasai egon behar. Helburu bat benetan nahi duenak, lozorroa astinduz eta lanari egiten dio garaile izateko uste osoak gogoia eta bihotza indarturik. Helbururik gaitzema lortzeko, askotan nahi izatea, aski. Euskal



"Jautarkol" 1958 urtean.

ikastolak, euskotar orok zinetan nahi bagenituzke, laster ginatete haien jabe eta jaun.

Ikastola-liburu egokiak behar ditugu lehendabizi eta berehalaxe. Idazle argijator batzuen batzuk lan onurakor-ixil horretan dihardutela, jakinararen gainean nago. Lan bikain-neketsu horretan ari direnek euskararen irripak gozoa eta gure elertiarren besarka maitekorra merezi dute, zinez.

Baina euskal ikastolaz gainera, eta hoekin batean ere, mota guzietako idaztiak behar ditugu. Gaurkoan, irakurle-ezaz noski, idazti gutxitxo argitaratu ohi dira gure elerti-basoan. Alabaina, euskal ikastoletatik irakurle-taldeak ateratzerako, idazti-pila edo meta polit bat eraldu behar dugu.

Gure elerti-etorkizunari buruz, beste bi bideok deritzaizkit garrantzidunak ez ezik, beharrezkoak ere: alegia, euskarazko hiztegi oso baten argitalpena eta euskararen batasunerantz idazle orok elkar hartuta jotzea.

Hiztegi politikak baditugu eta zenbait idazlanetareko egokiak eta nahikoak. Baina gaur ekin behar diogun lanari ekiten ez dira osoak. Jakintza-gai orotaz idazteko eta euskara elertun bakarrara heltzeko,

gainerako hizkuntzak darabiltzaten hainbat hitz behar ditugu guk ere. Hitzok euskararen erraietan sortutakoak edota beste hizkuntzetatik hartu eta euskarara moldatutakoak litezke, nere ustez. Euskaltzaindiak lan honi eutsi dio, baina motelegi ez ote darabilkion nago. Gainerako eginkizun orok baztertuta, arlo honi lehenbailehen buru ematea, euskararentzat eta elertiarrentzat egin beharrik axolazkoena, gaur noski, gure artean.

Euskararen batasuna dela-ta, ez bezait, arren, inork Sabin-izen handia aitatu eta are gutxiago haren aurka noala esan. Gizon indartsu honexen bultzakada maitakorrak euskara-lanetara erakarri ninduen eta haren bularretako euskal esneaz hazi nintzen. Haren arnasa aberkoiak, idazlanetan jarraitzeko lehi bizi piztu eta indartzen dit oraingoan ere. Sabindarra izateko haren lanen mami gihartsua hartu eta gureganatzea aski dugu. Gure elerti-pizkundea berari zor diogu eta

haren kutsu hilezkorra nabari zaio euskara osoari. Ez zen huts-ezina Sabin, gizona baitzan. Hau dela-ta, euskararen batasunaz idatzita utzi ziguna, gaur bizi balitz, alderantzira idatziko ligukeela, uste osoan nago. Halaxe uste dute haren seme kutun askok eta askok ere. Hasieran ele guziek batasunera jo behar izan dute, ez herriak ahoz darabiltzan elekien, dialektoen, batasunera noski, idazleek idazlanetan erabili ohi duten hizkuntza elertun bakararra eraltzera baizik. Euskararen bizitza zinez nahi badugu, bide hori hartu behar, beraz, guk ere. Gainerako ele guzietan bai, baina euskarari bide horixe ez dagokiola esatea, bidegabekeria galanta litzateke.

Gure artean jakintsurik izan badugu, Eleizalde'tar Koldobika, izan dugu. Hara, bada, Sabin-jarraitzaile bero honek zioena: «Gure herri txiki honek hiru edo lau euskelgi elertun izan litzakeela uste izatea, euskarazko egiazko kulturarik izan ez genezakeela aitortzea bezalaxe da. Apaikeri-zalekeriaz, euskara hiltzea litzateke horixe: guzior hizkuntzaren hilobian, hilarritz eder-bikain bat idazteko besterik, ez litzazkiguke gauza izango hiru edo lau euskelgi elertunok.»

Kroatar elea, euskararen gisa, hiru elekietan bizirik zegoen. Hona, Strossmayer-ek hango idazleei ziotsena: «Ez dute inoiz aberri txikiak

Hona, beraz, Jautarkolek orain dela 60 urte pasatxo nola ikusten zuen euskal "elertiaren" (literaturaren), euskararen beraren geroa, beste jakingarri askorekin batean. Aztiak ez izaki eta, ezin jakin orduan etorkizun zen gaurko orainari zer iritziko liokeen!

Hitz argigarriak irakurrita ezinbestean beste errenteriar egitasmogile baten hitzak etorri zitzaizkidan gogora. Hona aldatuko dizkiuzet Koldo Mitxelenaren zenbait pasarte zeuok aldera ditzazuen. Lehen lauak EGANen 1951n argitara eman zuen "Euskal literaturaren etorkizuna" bere lehen euskal lanetik atera ditut, gainerantzekoak, Jautarkolek hain premiazkoztat ikusten eta amesten zuen batasunareko lehen urratsetakoa den "Euskararen batasun bideak", 1968ko Arantzazuko Biltzarrerako ondu zuenetik.

"Eta gainerakoen gain, gorago eta barrenago, gure izaera osoa biltzen eta barrentzen duen hizkuntza, barrengo mintzabeharrari hitz-iturri luzea ematen diona. Hizkuntzaren guretzako balioa, berriz, zein gurea, zein ezin utzizkoa dugun ezin jakin, gure artean bezala hildako ala bizitako ote dugun zalantzan gaudenean baizik". (1951, "Euskal literaturaren etorkizuna", *Egan*, 1951 (3); *Mitxelenaren Euskal Idazlan Guztiak IV:22*).

"Honengan [Lizardiren "Eusko-bidaztiarena" poeman, alegia] agertzen zaigu poetaren dohai harrigarria: ikasi gabe daki eta begiratu gabe begi argiz ikusten du; pentsatu gabe hitz sarkor betikoak ahora etorri zaizkio. Euskal literaturaren eginkizuna, behar-beharrezkoa eta ber-bertatik ekitekoa, ezin-hobeki agindua daukagu: larreko hizkuntza noranahiko egin, jakite-hegoz jaso, soin zaharrari gogo berria eman eta gogo horretan izar urdinetarainoko asmoak sortarazi (...)

Nahitaezkoa dugu, beraz, euskal literaturari geure esku-lanez edo geure gogo onez bederen lagundu nahi geniokeenok geure burua aztertzea, ea zertan garen, itzaropidean ala etsibidean; ea zein den gure eginkizuna eta, batez ere, gure lagundu nahia zenbaterainokoa den". (1951, "Euskal literaturaren etorkizuna", *Egan*, 1951 (3); *MEIG IV:24*).

"Euskal literaturari eta euskararen biziari buruz horixe ikas dezagun eta, ikastea nahikoa ez delarik, buru-bihotzetan josi: lan nekagarri hori, ia ezin jaso ahalako zama astun hori gure gain dagoela, ez duela bestek egingo, ez digula inork eramango. Eta aski murriztua eta erdi agorturik gureganaino heldu den hizkuntza aurrrera ere biziko bada, gure eskuan dagoela ahalegintzea, orain arte inoiz ez bezala. Eta horretarako nahi hutsa, ondore gabeko nahia, eragin indarririk gabekoa, ez dela aski izango". (1951, "Euskal literaturaren etorkizuna", *Egan*, 1951 (3); *MEIG IV:25*).

"Eta beste guzior gain eta edozer baino gehiago, entzule eta irakurle lan dugu beharrezko. Sortzaileen esanak hauek beren bihotzetan maitekiro gorde eta ernatzeko lurrik ematen ez badiete, haien mintzoa «tupiki ozen eta txilin burrunbaria bezala», iraupen laburrekoa izango da. Eta entzule-irakurleak gaitzeko gai direnek lanari lehenbailehen ekin beharko, gizonaren gaitasunak gutxitan baizik ez baitira berez sortzen". (1951, "Euskal literaturaren etorkizuna", *Egan*, 1951 (3) *MEIG IV:27*).

"Ezin-bestekoa, hil-edo-bizikoa, dela uste dugu euskara batasun-bidean jartzea. Haur eta gazteei euskaraz irakasten baldin bazaie, eta euskaraz irakatsi behar euskara biziko bada, premiazkoa da guztiei batera edo bateratsu irakastea. Nahi eta behar dugun batasun hori, lehen urratsetan behintzat, euskara idatziarena, izkribuzkoarena, da. Eta, euskara idatziaren barrutian, irakaste-lanean dugu beharrenek batasun hori, irakurlearen atseginerako egiten den literatura «ederrean» baino areago". (1968, "Euskararen batasun-bideak", *Euskera*, 1968, 2. aldia XIII, 203-269; *MEIG VII:135*).

Zuek esango duzue pareak biltzen asmatu ote dudan. Nolanahi dela ere, ez zaizue bitxia egiten "xexteroaren" semeak "konfiteroaren" semearen laneko izenburu bertua aukeratua izana bere lehen euskal artikulurako?

elerti bereizirik izango, eleki oro, ele elertun bakarra idazkunetarako eraltzeko, batzareari, elkartzeari ekiten ez badiote». Eta berdin zioen Racki jakitunak ere.

Ez diot, gaur batasun hori egin behar dugunik. Hauxe besterik ez diot: euskararen ona eta bizitza benetan nahi dugunok, horretara jo behar dugula gaurtik, batasunari bideak zabaltu eta erraztera, ez ostera, euskelgiak elkarrengandik gehiago berexteko bideetara.

Elertiari buruz hain axolazko gai honetan, zuzen jokatzeko, gaurko hauze egin behar genukeela derizat: euskal idazle guzietan hots-egin eta batzarrean elkartu: arlo hau, zalapartarik gabe, osoro aztertu eta erabakiak hartu.

Gaurko idazlerik gehienek eta onenek batasunera jotzea nahi dutenik, ezin uka. Baina bide berdin eta egokiak behar horretarako. Non eta nola bideok aztertu hobeto, behar bezala eraldatu eta egindako idazle-batzarreen baizik? Betor, bada, lehenbailehen batzar hori. Gure elerti-etorkizun pozgarria, euskararen bizitza mardula eta egiazko abertzaletasuna, batzar horren eske dauzkagu"(Jauregi'tar Koldobika, *Eusko Ikaskuntzaren Deia*, 1932, XIV (54), 11-13. or.)

"Hizkuntza bizia hitz berrien premian da beti: bere baitarik sortzen ditu batzuetan, besterengandik hartu besteetan. Bi bideak zilegi eta beharrezko dira eta nork taxutuko du alde aurretik bakoitzaren neurria eta mugak? Euskaltzaindiak behinola esanak honetarako bakarrik balio zuen: ez dagoela hitz berriak sortu beharrik euskal hitz, zahar-jatorrak, erdaratikakoak direlakoak, baztertzeko asmoz". (1968, "Euskararen batasun-bideak", *Euskera*, 1968, 2. aldia XIII, 203-269; *MEIG VII:147*).

"Kultura-gaietan hartzaile Äbesteren zordun, berazÄ garenez gero, bidezko da, noski, hiztegian ere hartzaile eta zordun agertzea. Gogoetak geurok sortu bagenu, ez genuke gabil-tzan bezala jakite-gauzetan eta, beste hizkuntzetan sortu dituzten hitzak itzuli nahian ibili beharrik. Gauden gaudenean, ordea, maiz nabaritzen dugu premia hori". (1968, "Euskararen batasun-bideak", *Euskera*, 1968, 2. aldia XIII, 203-269; *MEIG VII:148*).



1924ko "Renteria" aldizkariak argitaratutako "Jautarkol"en argazkia.